

Josune García de Bikuña - Txoriak bezala hegan

[Kontalaritza eskola. Ahozko narrazio ikuskizunak.](#)

[Vital Fundazioa Kulturunea](#)

[A Aretoa](#)

2026eko ekainaren 15a

20:00h

Euskara



Vital Fundazioa Kulturuneak proposamen berri bat hartzen du, Gasteizko kultur programazioan laguntzeko helburuarekin, Josune García de Bikuña protagonista duen 'Txoriak bezala hegan' ahozko narrazio ikuskizuna.

Informazioa

Ikuskizuna

Lizarrate, Araba eta Gipuzkoa lotzen dituen bidearen gotorlekua. Alde batera eta bestera gertatutako istorio ugariaren oihartzuna entzun daiteke 70 metro inguruko harriek osatzen duten tunelean, Eta horietako askok bat egiten dute Barriako erromerian Kantu bat askatasunari, norberaren ahots propioa aldarrikatzeari. musikaren eta dantzaren botere eraldatzaileari.

Josune García de Bikuña

Hitzen forma eta soinuekin jolasten aritu naiz txikitatik, aho-korapilo eta kantuen bidez nagusiki. Kazetaritza ikasteak burutu ondoren, nire bideak arte eszenikoekin lotura izan behar zuela banekien eta azkenean, prest nengoela ikusirik, ipuinek aurkitu ninduten ni. Arinago nabil ordudanik, plazaz plaza kantu kontari. Bitartean, Hezitzaile lanetan eta beste horrenbeste euskararen irakaskuntzan zein normalizazioan aritu naiz.

Sarrera

Sarrera librea edukiera bete arte